

79 + 4 urratsen ondoren

Hizpide

Hausnarketarako une egokia dela uste dugu; izan ere, Hizpide / Zutaberen 80. zenbakira iritsi gara 30 urteko ibilbidean. Eta, izenburuko +4 hori nondik datorren argitzeko, aintzat hartu lau monografia ere argitaratu zirela 1991, 1993¹, 1999 eta 2001ean. Hau honela, aldizkariak orain arte izan dituen arduradunengana jo dugu –Imanol Irizar, Joanba Bergara eta Josu Peralesengana–, iraganari, orainari eta geroari begiratutxo bat emateko asmoz. Zazpina galdera egin diegu, eta hona hemen jasotako erantzunak.

Imanol Irizar



Imanol Irizar izan zen hasierako arduraduna; 1983 eta 1984 urteetan argitaraturiko lehenengo bost zenbakien koordinatzailea, hain zuzen.

Nola ikusten duzu aldizkariaren ibilbidea?

30 urtekoa luzea da *Zutabe/Hizpide* bezalako aldizkari espezializatu batentzat, eta, normala den bezala, aldatzen joan da urteak aurrera egin ahala. Batetik, garaiak aldatu egin dira, hizkuntzen didaktikaren diziplinak bilakaera handia izan du 30 urte haue-

1. 2. monografia hori –ZUTABE (1993). Monografiak 2– aldizkariaren hamar urteei buruzkoa izan zen.

tan; euskararen irakaskuntzan diharduten profesionalen prestakuntza hobetu egin da nabarmen eta profila ere aldatzen joan da. Eta, bestetik, aldizkariaren arduradunak ere aldatu egin dira, eta, jakina, bakoitzak bere ikuspegia eman nahi izan dio aldizkariari, norberak finkatu dituen lehen-tasunen arabera planteamenduak eginez.

Zein izan da ibilbide horretan indargunerik handiena, zure ustez?

Laurogeigarren hamarkadan ez zegoen ia ezertxo ere alor honetan euskaraz, eta ezer gutxi gaztelaniaz; gaur egun, aldiz, gehitxo dagoela ere esan dezakegu. Hogeita hamar urteko ibilbidean, ehunka artikulua argitaratu dira hizkuntzen didaktikaz euskaraz *Zutabe/Hizpiden*, eta horrek erreferentziatzeko corpusa osatu du euskara-irakasleen kolektiboaren zerbitzura, eta, zehazkiago, euskara helduei irakasten dien profesionalenera.

Eta ahuleziarik nabarmenena?

Egungo aldizkariaren harpidedunen kopurua jakin gabe ere, esango nuke aspaldian igaro behar zuela *Hizpide* aldizkariak euskarri digitalera eta, horrela, zabalkunde-bide berriak aktibatu; iruditzen zait PDFan eskaini beharko lirartekeela artikulua historikoen zein argitaratu berrien testu osoak, eta eduki berriak RSS bidez sindikatzeke aukera eman. Esango nuke nahikoa lan dugula digitalera pasatuta ere, baina, soilik paperari utsita, ez diot etorkizun luzerik ikusten.

Badago oraindik gogoan duzun artikuluren bat?

1982an hasi ginen euskaraz eta hizkuntzen didaktikaz arituko zen *Zutabe* aldizkaria diseinatzen, eta 1983aren hasieran argitaratu zen lehen alea; Kanadari buruz izan zen lehen zenbaki haren gai monografikoa, eta, bertan, Jean-Denis Gendron eta William F. Mackey bezalako adituei egingako elkarriketa xume bat argitaratu genuen. Hurrengo urtean, berriz, 5. zenbakian, Mackeyren artikulua luze bat eman genuen argitara (“Sei galdera L1/L2 dikotomiari buruz”), probestuz lehenagoko harremana. Kontuan izan behar dugu, garai hartan, Mackey mundu mailako gurutza zela hizkuntzen didaktikaren alorrean, eta oso pozgarria izan zen horrelako ekimen bat aurrera ateratzea.

Eta konta daitekeen bestelako pasadizorik?

2005eko otsailean, Garzón epailearen aginduz, Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren Dokumentazio Guneko zuzendari Juanjoxe Agirre atxilotu zuen Guardia Zibilak, eta goitik behera miatu zuten guztia; besteak beste, ETaren *Zutabe*en bila. *Hizpide* izena hartu arte, gure aldizkariak *Zutabe* zuen izena, eta ez nintzateke batere harrizko Guardia Zibilen miaketa hartan gure *Zutabe*ak miatzen egotea, ETarenak zirelakoan.

Zeintzuk dira azpimarratuko zenituzkeen erronkak?

Aldizkari berezituaren alorra ez dabil bere garairik onenean, baina soilik paperari eusten dioten aldizkari teknikoek ez dute etorkizun samurrik. Horrexegatik, uste dut mundu digitalerako jauzia egin behar duela *Hizpidek*, eremu berriak topatzen saiatu eta zabalkunde-molde berrietan aritzeko. Ez zait iruditzen, 5-10 urte barru, aldizkari espezializatu askorik geratuko denik Euskal Herrian soilik paperean. Badirudi formula mistoak (papera gehi digitala) nagusituko direla datozen urteotan, baina, hainbatetan, jauzia euskarri digital hutsera izango da.

Aukeren artean, berriz, hizkuntz irakasleen kolektibo zabala legoke, lan-kidetzan aritzeko oso aproposa dena: hizkuntz irakasleak, euskara-irakasleak, helduen euskara-irakasleak. Talde bakoitzaren mugak eta aukerak aztertu beharko lirateke, nola eragin asmatzeko.

Egokiera baliatuz, proposamen bat luzatu nahi nuke etorkizunean *Hizpidek* izango dituen erronkei aurre egiteko lagungarri izan daitekeelakoan: zuzendaritza-batzorde bat osatzea, hasierako urteetan egon zen bezalaxe.

Nola animatuko zenuke norbait HIZPIDE irakurtzera? Eta bertan idaztera?

Batik bat, euskalduntze-alfabetatzearen sektoreko profesionalei zuzendutako aldizkaria izanik, multzo horretako profesional horiek berak dira –neurri batean, bederen– aldizkaria elikatu beharko luketenak; baina ez dira ahaztu behar inolaz ere ikastetxeetan, berritzeguneetan, unibertsitateetan..., zuzen ala zeharka, euskararen irakaskuntzan dabiltzan profesional-andana. Egun bateko formatu sinplean antolatutako jardunaldiak, hausnarketa-saioak, esperientzia-trukaketak eta horrelako ekimenak izan daitezke *Hizpiderako* iturri egoki.

Joanba Bergara



1984tik 1994ra bitartean, Joanba Bergara izan zen aldizkariaren koordinatzaile. Haren ardurapean eman ziren 29 ale argitaratuta (6. zenbakia, lehena; eta 34.a, azkena) eta arestian aipaturiko Monografiak 1 eta Monografiak 2 izeneko ale bereziak.

Nola ikusten duzu aldizkariaren ibilbidea?

Harriduraz ikusten dut, gorabeherak gorabehera, atzerapenak atzerapen eta isiluneak isilune, bizirik diraelako 1983. urtean abian jarri zen egitasmoak; urteak joan urteak etorri, hasierako gogoak orain ere bere horretan diraelako. Harriduraz, lan eskerga egin delako, urteen poderioz korpus espezialdua garatu dugulako eta aldizkariak euskara-irakasleen prestakuntzarako hainbat baliabide

eskaini dituelako. Ezin ahaztu nondik abiatu ginen, eta gurea bezalako aldizkariak gurean zuten eta egun duten presentzia, egindako lanaren premiaz eta tamainaz jabetzeko.

Zein izan da ibilbide horretan indargunerik handiena, zure ustez?

Hiru alderdi azpimarratuko nituzke. Lehendabizi, euskaraz guk geuk, geurean, sortutakoa izatea; gure esparrua txikia baita, bere txikian handia bada ere. Bestetik, formatua eta partaidetza: aldizkari arinago eta irakurterrazagoa eskaini nahian, 1991. urtean formatua aldatu genion, eta gai monografikoak ohiko hiru aleetatik at utzi, ale berezietan argitaratzeko. Horrez gain, aldizkariaren bideak zabaltzeko ahaleginak egin genituen, izatez ezberdinak ziren moldeak ugariagotzeko; eta, era berean, baita egin ere euskara-irakasleen arteko eztabaidak eta elkarlana sustatzeko saioak: esaterako, mintegi iraunkorra izeneko saila datorkit gogora. Azkenik, ezin aipatu gabe utzi aldizkariak, Itzulpen Sailarekin batera, euskal psikolinguistikaren garapenean izan duen eragina.

Eta ahuleziarik nabarmenena?

Euskaltegien partaidetza aldizkarian. Hamaika lan egin, proiektu eta berrikuntza ugari abian jarri eta burutu dituzte euskaltegiek urte hauetan, aldizkarian oihartzun izatea merezi zutenak. Alde horretatik, nire ustez, ez dugu behar bezala baliatu aldizkariaren erakusleihoa.

Badago oraindik gogoan duzun artikuluren bat?

Andragogiari buruzko monografia aipatuko nuke, lehenik. Londresen nengoen, hura idazteko konpromisoa hartu nuenean, eta erronka handia izan zen. Hortaz aparte, nigan eragin berezia izan zuen lan bat aipatuko dut: Chris Kennedy-ren “Aldatzeko berriztatuz: irakaslearen garapen eta berriztapena”, aldizkarian 1997an argitara eman genuena. Gogora datozkit, baita ere, curriculumaren berrikuntza zela-eta, 1996an eta 1997an argitara eman genituen metodologiaren alorreko hainbat lan (Skehan, Dave eta Jane Willis, Scrivener, Gibbons). Eta, amaitzeko, Reading Unibertsitateko Keith Morrow irakasleak aldizkarirako idatzi zuen lana: “Nola sortu komunikamena neurtzeko testak: kasu baten azterketa”, 1996an. Gorabehera zenbait medio, 1994an eta 1995ean etena egin behar izan genuen. Baina lan garrantzizkoak bildu, eta ohiko dinamikari heldu genionean eman genituen argitara.

Eta konta daitekeen bestelako pasadizorik?

Aurten hil den J. L. M. Trim elkarrizketatu nuen Londresen –elkarrizketa luze eta mamitsu hori aldizkariaren 7-8. zenbakian eman genuen argitara 1985ean–. Eta bitxia izan zen Doverreko aduanan gertatu zitzaizdana. Poliziak elkarrizketa hori egiteko nik prestatutakoa atzeman, eta

hamaika galdera egin zizkidan. Denbora luzez eta jakin-minez aztertu zuten nik prestatutakoa; gogoan dauzkat oraindik laburdura teknikoei buruz egin zizkidaten galderak. Euren lana amaitu zutenerako, autobusa Londreserako bidean zegoen jada, eta maleta jira eta bira, ni noiz askatuko zain. Gero, trena hartu, eta autobusa baino lehen iritsi nintzen Londresera. Ez dut inoiz ahaztuko gertaera hori, ez horixe!


Zeintzuk dira azpimarratuko zenituzkeen erronkak?

Ideien, proposamenen eta proiektuen zabalkunderako zein eztabaida akademikorako foroa izatea du, nire iritziz, erronka nagusia egun ere Hizpidetik. Bestetik, euskalgintzan ari den euskara-irakaslearen premiak hartu behar ditugu gogoan; baita informazio eta komunikaziorako teknologiek eskaintzen dizkiguten aukerak ere.

Nola animatuko zenuke norbait HIZPIDE irakurtzera? Eta bertan idaztera?

Irakurtzea baino garrantzizkoagoa da zergatik eta zertarako zehaztea; baita bakarrik edo lankideekin irakurtzen den ere; alegia, ea partekatzen den irakurketa. Nork bere aldetik egin lezake hori; baita etekina atera ere. Baina argitalpeneko irakurgaien azterketa askoz hobea egiten da, zalantzarik gabe, prestakuntza-plan partekatuan txertatuta baldin badago. Eta idazteaz ere antzeko zerbait esan genezake. Euskaltegiaren erabakiz idazten bada, euskaltegien ekimenak aldizkariaren erakusleihan izango dira, guztion onuragarri. Eta hori horrela izatea dugu erronka nagusietako bat. Eta denbora faltaz-edo —nahi bai, baina ezin gabiltzanean—, euskaltegiek beti izango dute elkarrizketatuak izateko egokiera.

Josu Perales



Josu Perales izan da hirugarren arduraduna 1996tik 2012ra bitartean. Tarte honetan, 35. zenbakitik 79.era eta bi monografia eman dira argitara, HIZPIDE izenaz plazaratutako guztiak, hain zuzen.

Nola ikusten duzu aldizkariaren ibilbidea?

Aldizkarian gertatu diren aldaketek orpo orpo jarraitu diete Euskalduntze-alfabetatzean gertatu direnei. Orain dela 30 urte, euskara batua bera ere ari zen osatzen eta irakasleriaren prestakuntza ere ez zen nahi bezain asebetegarria. Horrela, bada, zenbakiz zenbaki, nazioarteko aldizkari teknikoetan publikaturiko hainbat eta hainbat artikulua oinarritzoren itzulpenak eman izan ditugu argitara. Gehiago lehen, orain baino. Ikasteko garaia zen, eta beste itu-

rrietatik edan beharra zegoen. Gaur egun, itzulpenen bide horrek irekita jarraitzen du –noiznahi ager daiteke sona handiko nazioarteko artikuluen baten itzulpena–. Hala ere, nabarmen ugarituz joan dira euskaraz idazten duten artikulugileen ekarpenak. Eta, euskaraz idazten dutenen artean ere, gero eta gehiago dira Euskalduntze-alfabetatzean ogibidea dutenen ekarpenak.

Xede-irakurleak, bestalde, gero eta trebeagoak dira ingelesez irakurtzeko. Euskara-irakasleak gero eta jantziago daude. Prestakuntza-mailak gora egin du era nabarian, eta *Hizpidek* garaian garaiko egoerari erantzun behar dio. Esan liteke *Hizpideren* orrialdeetan idatzita dagoela, hein handi batean, Euskalduntze-alfabetatzeak azken 30 urteotan urratu duen ibilbidearen kronika.

Hari beretik, bada, batez besteko artikuluen orrialde-kopurua ere handitu egin da. Artikulu luzeagoak eta mamitsuagoak plazaratzen dira orain. Orain dela 30 urte, bazeuden 5 orrialdeko artikuluek ere, zeharo emanak ikasgelako jardueretara. Ikasgelako prozedurak edota materialaren erabilera-moduak jorratzen ziren: “Nola landu mintzamina”, “Irakurgaiak lantzeko baliabide bat” eta tankera bertsuko gai orokorrak ziren lan-gai. Urteak igaro ahalean, artikulu jantziagoak eta xeheagoak argitaratu ditugu, orokortasunetik zehaztasunera igaroz.

Zein izan da ibilbide horretan indargunerik handiena, zure ustez?

Hizpide aldizkaria, Helduen euskalduntze-alfabetatzean ez ezik, ezaguna da euskararen mundu akademikoan ere. Pozgarria da ikustea Euskal Herriko hainbat eta hainbat fakultatetako irakasleek ere beren eskoletarako baliatzen dutela aldizkaria –psikopedagogian eta pedagogian, esaterako–. Euskalduntze-alfabetatzearen gaineko corpus oparoa sortu da; agian, behar beste estimatzen ez dakiguna. Ezin ahantzi daitezke, bestalde, bidaide izan ditugun aldizkariak ere: ELE, esaterako. Era batera edo bestera, *Hizpiden* daude jasota hizkuntzen irakaskuntzan azterkizun diren gaiak.

Hizpide ez da *hic et nunc* eskuarteko aleko artikuluen bildumatxoa, *Zutaberen* lehenengo aletik argitara emandako artikuluen horiek guztiak dira. Behin argitaratuz gero, hor egongo dira betiko jasota. Esan daiteke, ez bairik gabe, erreferentziatzeko aldizkaria dela Euskalduntze-alfabetatzean. Irakasleen beharrak aztertzeko lan bat burutu genuen Prestakuntza Ataletik, eta “Nola motibatu ikasleak?” izan zen bertan ageri zen kezkarik nagusia. Galdera bat sartu genuen, jakiteko aldizkaria zenbateraino irakurtzen zen. Irakasle gehien-gehienek ezagutzen zuten *Hizpide*, baita bertako artikuluek irakurri ere. Baina ez dakigu zehazki zenbateraino datozen bat esanak eta eginak.

Eta ahuleziarik nabarmenena?

Agian, neure grina pertsonalari men eginez, tarte gehiago eskainiko nioke ikerketari. Baina ulertzen dut *Hizpide* zabalkunde-aldizkaria dela gehiago, ikerketa-aldizkaria baino. Eta lotura sendoa behar du izan ikasgelan egiten denarekin. Gure aldetik, agian, gehiago sustatu beharko genituzke irakurleak jadanik argitara emanda dauden artikulua irakurtzera. Artikulu bat orain dela bost urte plazaratu izanak ez dio inolaz ere duen balioa deuseztatzen. Eta teoria eta praktika elkarrekin uztartzearen erronkari egin behar zaio aurre. Ahalegin guztiak egin behar ditugu etenik gabe, aldizkaria ondo idatzitako lanen hilkutxa izan ez dadin.

Badago oraindik gogoan duzun artikuluren bat?

Artikulu asko dira niretzat gogoangarri. Celce-Murcia, Dörnyei eta Thurrell-ek idatzitako “Gaitasun komunikatiboa: asmo pedagogikoek sortutako eredu bat, osagaien edukiak zehaztuta”, esaterako. Edo Ron Sheen-ek idatzitako “Forman oinarritzea: sortzen ari den mitoa”: Sheen irakasle kanadiarra herejea izan da eta bada, zeren eta, AOI planteamendua puri-purian zegoenean, berak gogor egin baitzuen kontra, euskarri eta froga enpirikoak lagun. Pello Esnañen lanak ere ezin aipatu gabe utzi. Curriculumaren gainean idatzitako ale monografikoak ez dituzu salgai aurkituko, agortuta daude eta! Edo Jose Luis Alvarezen “Euskaltzaindiaren hiztegi batuaren historiari eta metodologiari” orain dela pare bat urte plazaratutako lan mardula. Askok dira gogoan dituzten artikulua.

Eta kontu daitekeen bestelako pasadizorik?

Ugari daude. Behin, orain dela zazpi bat urte edo, abuztuko oporretan, Ondarretako hondartzara joan nintzen. Opor-giroa erabatekoa zen. Jende asko, eta gutxi batzuk irakurgai udatiar arin horietakoak irakurtzen. Eta horra hor non ikusi nuen neska gazte bat, arreta bere irakurgaira zeharo bildua zuena. Eta zer zuen begien aurrean? *Hizpideren* ale bat. Tentazioa izan nuen galdetzeko zein artikulu ari zen irakurtzen, ea euskara-irakasle ote zen. Baina ez nintzen ausartu.

Beste behin, lankide bat etorri zitzaidan Logroñoako altzari-denda handi baten katalogoarekin. Logelak zituzten salgai, dotore askoak. “Begira, begira”, esan zidan. Nik ez nekien zeri erreparatu behar nion. Paperaren kalitateari? Testuen txukuntasunari? Argazkian, ohe modernoan ageri zen, eta, ohearen ondoan, mesanotxea lanpararekin, eta... mesanotxean, bai, *Hizpideren* ale bat. Tira! Barre egin genuen: “Zer adierazi nahi ote dute? Ondo lo egiteko aurretik *Hizpide* irakurri behar dela?”. Batek daki nola iritsi zen ale hura argazkiko mesanotxe hartara!

Zeintzuk dira azpimarratuko zenituzkeen erronkak?

Irakurlerik ez izatea da edozein argitalpenen mehatxurik handiena. Eta badirudi, oro har, gero eta gutxiago irakurtzen dela gizartean. Soziologo iragarle batzuek diotenez, prentsa idatzia desagertu egingo da 30 bat urteren bueltan. Bistan da egokitu beharra dagoela. *Hizpide* aldizkaria egona da euskarri digitalean. Hainbat aldaketa informatikoren kariaz saretik desagertu zen, sistema berriak jartzean berriz sarreratzekotan. Uste dut etorkizuna hor dagoela. Ez dut horren argi ikusten paperezko formatua erabat desagertzearena on line-ko bertsioaren mesedetan. Munduan, asko dira aldizkariak bi formatutan mantentzen direnak. Etxe barruan ditugu eztabaida-foroak, web-orriak, teknologia berriak... Egia da irakasleen adinaren batez bestekoa 41 urtekoa dela, baina baikor naiz zeharo, gurean aspaldi hasi baikinena teknologiak baliatzen, eta ez dago eten digitalik. Teknologiaren trenean gaude sartuta, eta hor jarraituko dugu.

Nola animatuko zenuke norbait HIZPIDE irakurtzera? Eta bertan idaztera?

Nire nahia harago joango litzateke. Ez nuke bakarrik *Hizpide* irakurtzea gomendatuko; HABEko liburutegia altxor bikaina da. Merezi duten aldizkari asko daude hor, ingelesez idatziak batez ere, eta irakasle asko eta asko dira kapaz, ingeles idatzia ulertzeko. Beraz, nire gomendioa izango litzateke ahalik eta gehien irakurtzea; ez *Hizpide* bakarrik. Nork bere interes eta mailako gaiak irakurtzea proposatuko nuke. Eta irakurtzea ez ezik, formazio-saioetan parte hartzea eta lan-giroan ideiak elkarrekin trukatzeko ere proposatzekoak dira, aurrera egingo badugu. Arian-arian, patxada hartuta, aurrera egin daiteke norberaren autoprestaketan, norberari lagungarri zaizkion lanak irakurriz. Eta beste horrenbeste esan daiteke idazteari dagokionez. Estimatzekoak dira punta-puntako adituen ekarpenak, zalantzarik gabe. Baina beste inork ez ditu idatziko euskara-irakasleek beren ikasgelaz eta didaktikaz idazten ez dituzten artikulak. Eta irakasle-gogoeta hori behar-beharrezkoa dugu. Hemen ez du inork gaia bere osoan menderatzen. Bakoitzak parte bat daki. Eta dakigun guztia denon artean dakigu.